

Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2019ko azaroaren 11tik azaroaren 15erako astea

➤ **INGURU MAKROA:**


- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

➤ **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

➤ **GURE IKUSPEGIA**

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROGUNEAK: BPGd



Datuaren analisisia

Euroguneko BPGd-ak % 0,2 egin zuen gora ekaina eta iraila bitartean, Alemaniak atzeraldi teknikoa saihestea lortu zuelako eta gainerako herrialde handiek gorantz egiten jarraitu zutelako. Euroguneko hazkunde-tasa, bestalde, aurreko hiruhilekoaren maila berean mantendu zen. Zenbakiak uste baino hobeak izan ziren, eta aurrez egindako kalkuluak baieztatu zituzten. Txanpon bakarraren ekonomia nagusiak BPGd-aren % 0,1eko hazkundea izan zuen uztaila eta iraila bitartean, eta, beraz, bi hiruhileko jarraian jaistea saihestu zuen (atzeraldi tekniko gisa ezagutzen dena), urteko bigarren hiruhilekoan herrialdeko ekonomia % 0,2 jaitsi ondoren. Hiruhilekoko hazkundea % 0,4koa izan zen Espainian, % 0,3koa Frantzian, % 0,1eko Italian eta % 0,4koa Herbehereetan.

Adierazlearen azalpena

Eurostatek argitaratzen du Barne produktu gordina (BPGd). Herrialde baten ekoizpena eta hazkunde ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazle ekonomikoa bat da. Eurogunek ekoizten dituen azken zerbitzu edo ondasunen batuketak eginez lortzen da, eta denbora-tarte jakin batean erregistratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek lurralde nazionalen ekoiztutakoak izan behar dute, hala enpresa nazionalen nola atzerrikoen eskutik.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROGUNEAK: ZEW



Datuaren analisia

Alemaniaiko inbertitzaileen konfiantza neurtzen duen ZEW indizearen aukeren osagaia -2,1 puntutan kokatu zen azaroan, urriko -22,8 puntuetatik eta esperotako -13,2 puntuetatik. 2014ko abendutik izandako hileko igoerarik handiena da, nahiz eta datua oraindik maila negatiboan egon eta zazpigarren hilabetez jarraian. Adituen arabera, nazioarteko fronteen (Brexitaren eta tentsio komertzialen) gainera aurreikuspenek hobera egin dutelako gertatu da errebote hori. Gaur egungo egoeraren indizeak hobekuntza txiki bat baino ez zuen izan, -24,7 puntutan kokatu baitzen, esperotako -22,3 puntuen eta aurreko -25,3 puntuen aldean. Aurreikuspenek, beraz, hobera egin dute nabarmen.

Eurogunean, Alemaniaiko inbertitzaileen kezkak baretu egiten ziren, -1 puntutan kokatzeraino, azaroko -23,5 puntuen aldean. Horiek horrela, gaur egungo egoeraren inguruko irakurketak hobera egin zuen: -26,4tik -19,6ra.

Adierazlearen azalpena

Alemaniaiko Sentimendu Ekonomikoaren ZEW indizea Alemaniaiko ekonomiaren epe ertaineko egoeraren adierazle bat da. Une jakin batean dagoen "sentimendu ekonomiko" islatzeko balio du. Hilero argitaratzen du ZEW Institutuak. Europa osoko finantza-adituei egindako inkesta baten datuetan oinarritzen da. Alemaniaiko ekonomiaren hurrengo sei hiletako aurreikuspenei buruz galdetzen zaie adituei.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

ERRESUMA BATUA: BPGd



Datuaren analisia


Ekonomia britainiarra, aurreko hiruhilekoan % 0,2 jaitsi zena, % 0,3 hazi zen 2019ko hirugarren hiruhilekoan. Bildutako datu ofizialen arabera, Erresuma Batua atzeraldian sartzetik libratu zen, kontsumitzaileen gastuari, esportazioen hazkunderari eta zerbitzuen sektorearen sendotasunari esker (bigarren hiruhilekoan % 0,1 hazi bazen, % 0,4ra igaro zen hirugarrenean). Adituek -joan den ostegunean argitaratutako Diru-politikaren txostena prestatu zuten Ingalaterrako Bankukoek, besteak beste- % 0,4ko hazkundera aurreikusi zuten. Azkenean ez da aurreikuspen hori bete, Brexitak eta munduko ekonomiaren moteltzeak ekarritako ziurgabetasunaren ondorioz batik bat.

Adierazlearen azalpena

Estatistiken Bulego Nazionalak argitaratzen du barne produktu gordina (BPGd). Herrialde baten ekoizpena eta hazkunde ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazle ekonomiko bat da. Erresuma Batua ekoizten dituen azken zerbitzu edo ondasunen batuketa eginez lortzen da, eta denbora-tarte jakin batean erregistratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek lurralde nazionalen ekoiztutakoak izan behar dute, hala enpresa nazionalen nola atzerrikoen eskutik.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: KPI



Datuaren analisia

Hileko datuei begiratuta, urriko KPIa % 0,4ra igo zen iraileko % 0,1etik. Analistek, baina, % 0,3 igotzea espero zuten. Urte arteko kopuruetara ekarrita, inflazioa % 1,8ra igo zen iraileko % 1,7tik. Azpiko KPIa, osagai aldakorrenak alde batera uzten dituen (energia, esate baterako), % 0,2 igo zen iraileko % 0,1etik. Bada, datuek erakutsitako prezioen susperraldia Erreserba Federalak egindako aurreikuspenekin bat dator.

Adierazlearen azalpena

KPIa hileroko prestatzen du Lan sailak. Amerikako etxeek kontsumitzen dituzten oinarrizko zerbitzu eta ondasun multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

AEB: INDUSTRIA-EKOIZPENA



Adierazlearen azalpena

6

ASTEKO DATUEN PODIUMA

TXINA: INDUSTRIA-EKOIZPENA



Datuaren analisisia


Industria-ekoizpena urte arteko % 4,7 hazi zen urrian (aurreikusitakoa, % 5,4); beraz, aurreko urteko hil berean izandako hazkundearekin (% 5,9) alderatuta, 1,2 portzentajezko puntu egin zuen behera. Analistek espero zutena baino kaskarragoa izan zen datuak moteltzera egin zuen irailetik, hazkundera % 5,8koa izan baitzen orduan. Analisten arabera, enpresa pribatuen ekoizpenaren gutxitzea izan zen jaitsiera horren arrazoa, publikoak egonkor mantendu baitziren.

Adierazlearen azalpena

Industria-ekoizpenaren indizeak (IPI) herrialde bateko industria-sektorearen adierazgarri den enpresa multzo baten ekoizpenean emandako aldaketak neurtzen ditu. Hilero enpresei industria-sektorearen egoerari buruz egiten zaizkien galdetegiaren erantzunetatik lortzen dira datuak. Ekonomia baten ekoizpen-maila nola aldatzen den jakitea oso garrantzitsua da hazkundearen analisia egiteko.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

JAPONIA: BPGd



Datuaren analisia

BPGd-a % 0,2ko urte arteko erritmoan hazi zen 2019ko urteko hirugarren hiruhilekoan, kapitalaren gastuari eta etxeko eskariaren igoerari esker, BEZaren igoeraren aurreko azken minutuan. Bada, faktore horiek esportazioen beherakada zorrotza orekatu zuten. Uztaila eta iraila bitartean, munduko hirugarren ekonomia % 0,1 hazi zen aurreko hiruhilekotik. Hiruhilekoen arteko datuei begira, Japoniako BPGd-aren hazkundea elkarren segidako laugarrena izan da, eta dezelerazio nabarmena ekarri du aurreko epealdiari dagokionez.

Adierazlearen azalpena

Barne produktu gordina (BPGd) herrialde baten ekoizpena eta hazkunde ekonomikoa neurtzeko erabiltzen den adierazle ekonomiko bat da. Herrialde batek edo ekonomia batek ekoizten dituen azken zerbitzu edo ondasunen batuketa eginez lortzen da, eta denbora-tarte jakin batean erregistratzen da. Zerbitzu edo ondasun horiek lurralde nazionalen ekoiztutakoak izan behar dute, hala enpresa nazionalen nola atzerrikoen eskutik.

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreik.
11/19	Estatu Batuak	Hileko etxebizitza berriak	% 5.1
11/20	Japonia	Balantza komertziala	¥229.3b
11/20	Japonia	Urte arteko esportazioak	-% 7.5
11/20	Japonia	Urte arteko inportazioak	-% 15.2
11/20	Estatu Batuak	Fed-en ordainsariak	--
11/21	Frantzia	Enpresen konfiantza	105
11/21	Espania	Balantza komertziala	--
11/21	Eurogunea	OCED Aukera Ekonomikoak	0
11/21	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	218k
11/21	Eurogunea	Kontsumitzailearen konfiantza	-7.3
11/21	Estatu Batuak	Bigarren eskuko etxebizitzaren salmenta	5.49m
11/21	Estatu Batuak	Hileko etxebizitzaren salmenta	% 2.0
11/22	Japonia	Urte arteko KPIa	% 0.3
11/22	Japonia	Japoniako Jibun Bank fabrikazioaren PMIa	--
11/22	Japonia	Japoniako Jibun Bank Composite PMIa	--
11/22	Japonia	Japoniako Jibun Bank Zerbitzuen PMIa	--
11/22	Alemania	Urte arteko BPGd NSA	% 1.0
11/22	Frantzia	Frantziako Markit fabrikazioaren PMIa	50.9
11/22	Frantzia	Markit Frantzia Zerbitzuak PMI	53.0
11/22	Frantzia	Markit PMI Composite Frantzia	52.8
11/22	Alemania	Alemaniko Markit/BME fabrikazioaren PMIa	42.8
11/22	Alemania	Markit Alemania Zerbitzuak PMI	52.0
11/22	Alemania	Markit/BME Alemania Composite PMI	49.3
11/22	Eurogunea	Euroguneko Markit fabrikazioaren PMIa	46.4
11/22	Eurogunea	Markit Eurogunea Zerbitzuak PMI	52.4
11/22	Eurogunea	Markit PMI Composite Eurogunea	50.9
11/22	Erresuma Batua	Markit, RU Saren PMI fabrikazioa	48.8
11/22	Erresuma Batua	Markit/CIPS RU Zerbitzuak PMI	50.1
11/22	Erresuma Batua	Markit/CIPS RU Composite PMI	50.2
11/22	Estatu Batuak	Markit AEB Zerbitzuak PMI	51.2
11/22	Estatu Batuak	Markit AEB fabrikazioa PMI	51.5
11/22	Estatu Batuak	Markit PMI Composite AEB	--
11/22	Estatu Batuak	Pertzepzioa Mich. U.	95.7
11/22	Estatu Batuak	Oraingo egoera Mich. U.	111.2
11/22	Estatu Batuak	Aukerak Mich. U.	--
11/22	Estatu Batuak	Fed-en fab. jarduera Kansas Cityn	-2

BURTSA:

Asteon, igoera arinak izan dira Europan, eta pixka bat handiagoak AEBetan (indize nagusiek maximo historikoak berritu dituzte). Asian eta Gorakorretan, aldiz, tonua negatiboagoa izan da. Merkataritza-arloko albisteez eta makro datuez erakarri zuten inbertitzaileen arreta. Asian ere izan zuen eraginik Hong Kongeko istiluen biziagotzeak, eta Espainian, zalantza politikoez azaldu zuten Ibex 35 indizeak astea saldo negatiboarekin bukatzea. Espainiako indizeak ez zuen inolako erantzunik izan hauteskundearen emaitzen aurrean, baina negatiboan kotizatu zuen PSOEren eta Unidas Podemosen arteko gobernu akordioa. Izan ere, bi alderdien arteko akordioak gastu publikoaren igoera ekar lezake zergak handitzearen truke, bankuei aplikatuko zaien zerga zehatz bat barne. Hori dela eta, bankuen sektorea izan zen Ibex 35 indizeko kaltetuena. Merkataritza-arloan, Trumpek ez zuen xehetasun berririk eman Txinarekin egindako akordioaren 1. fasea noiz edo non sinatuko den, inbertisiogileen etsipenerako. Gainera, presidenteak adierazi zuen nabarmen handituko zituela muga-zergak, akordioa sinatzen ez bada. Hala ere, Etxe Zuriko ekonomia aholkulariaren adierazpenek, lehen akordio horren «gertutasuna» aitortuz, eta Txinak AEBetako hegazti-produktuen inportazioari bost urteko betoa kentzeko hartutako erabakiak merkatuak babestu zituen. Makro ingurunean, AEBetako xehekako salmentek ezusteko positiboa eman zuten, baina industria-ekoizpenaren datua espero baino okerragoa izan zen. Europan, Zew indizeak hobera egin zuen, eta Alemaniak atzeraldi teknikoa saihestea lortu zuen. Txinan, bestalde, datuak kaskarrak izan ziren. Hirugarren hiruhilekoko enpresa emaitzei dagokienez, ia denak argitaratuta dauden honetan, AEBetako emaitzek piztu dute harridura gehien. Europan, aldiz, emaitzak esperotakoak izan ziren.

ERRENTA FINKOA:

Zuhurtzia handiagoz jokatzeko gobernuaren «core» kurbak baretzea ekarri zuen Atlantikoaren bi aldeetan. Bund bonuaren errentagarritasunak - 7 op egin zituen behera, -% 0,33raino, eta Estatu Batuetako bere homologoa -11 op jaitzi zen, % 1,83ra. Europako herrialde periferikoek arrisku-primak handitu zituzten. Espainian, gobernu koalizioa osatzeko PSOEren eta Podemosen arteko akordioak diferentziala + 12 oinarritzko puntutan handitu zuen Alemaniarekin, 77 op-raino. Kredituak, bestalde, diferentzialak handitu zituen.

DIBISAK / LEHENGAIK:

Euroa eremu estu batean mugitu zen dolarraren aldean, eta 1,105 \$/euro mailan amaitu zuen astea. Europako dibisa -% 0,65 ahuldu zen liberaren aurrean, Erresuma Batuko hauteskundeetarako hilabete baino gutxiago falta denean. Lehengaiei begira, petrolioaren prezioa %1,52 igo zen, Energiaren Nazioarteko Erakundeak egindako adierazpenen ondoren: datozen urteetan petrolio gordinaren eskariak hazten jarraituko duela espero du, nahiz eta erritmo motelagoan 2025etik aurrera. Urrearen balioa, bestetik, % 0,64 igo zen, 1.468,30 \$/ontza mailaraino.

INDIZEAK	PREZIOA	% Aldaketa Astean	Ald. % 2019
MSCI WORLD (Local)	1.751,95	0,49	21,54
IBEX 35	9.261,40	-1,41	8,45
DJ EURO STOXX 50	3.711,61	0,32	23,66
DJ STOXX 50	3.337,19	0,00	20,91
FTSE	7.302,94	-0,77	8,54
S&P 500	3.120,46	0,89	24,48
Dow Jones	28.004,89	1,17	20,05
NASDAQ	8.540,83	0,77	28,72
NIKKEI 225	23.303,32	-0,38	16,43
MSCI GORAKORRAK (Lo	58.577,21	-1,17	9,65
MEXBOL	43.392,36	-0,71	4,21
BOVESPA	106.556,90	-1,00	21,24
SHANGHAI	3.029,26	-2,46	16,00
Errusia Rts Mosku	1.449,42	-1,28	35,62

Gobernuen tasak	Maila	Aldaketa Astean	Ald. 2019
ALEMANIA 2 URTE	-0,63	-0,02	-0,02
ESPAINIA 2 URTE	-0,37	0,02	-0,12
AEB 2 URTE	1,61	-0,06	-0,88
ALEMANIA 10 URTE	-0,33	-0,07	-0,58
ESPAINIA 10 URTE	0,44	0,05	-0,98
AEB 10 URTE	1,83	-0,11	-0,85
ALEMANIA 30 URTE	0,19	-0,08	-0,69
ESPAINIA 30 URTE	1,32	0,06	-1,29
AEB 30 URTE	2,30	-0,12	-0,71
Kreditu-spreada (op)			
MARKIT ITRX EUROPE 12/24	49,27	0,33	-39,10
MARKIT ITRX EUR XOVER 12/24	234,88	2,90	-118,80

Dibisak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald 2019
Dolarra / Euroa	1,11	0,30	-3,64
Yena / Euroa	120,20	-0,16	-4,37
Libera / Euroa	0,86	-0,65	-4,73

Lehengaiak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald 2019
Petrolio (Brent)	63,93	1,52	20,24
Urrea	1.468,30	0,64	14,49

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.